BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

143

AGINDUA, 2011ko azaroaren 23koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskadiko Eskola Kontseiluko kideen kargugabetzea eta izendapena xedatzen dituena.

Urriaren 28ko 13/1988 Legeak, Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzkoak, 12. artikuluan, martxoaren 7ko 55/1989 Dekretuak, aurreko legea garatuz Euskadiko Eskola Kontseilua arautzen duenak, 4., 5. eta 8. artikuluetan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 1990eko apirilaren 4ko Aginduak, Euskadiko Eskola Kontseiluak funtzionatzeko araudia onartzen duenak, 15. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Eudelen proposamenez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Pertsona hauek Euskadiko Eskola Kontseiluko kide gisa kargugabetzea: Ibone Bengoetxea Otaolea andrea, Ainhoa Campo Arenaza andrea, Izaskun Ajuriagereka Legarreta andrea, Ricardo Burutarán Ferré jauna, Benjamín Atutxa Iza jauna eta Bittor Oroz Izaguirre jauna.

Bigarrena.– Haien tokian, agintaldia bukatzeko geratzen den aldirako eta Eudelen izenean, ondorengo pertsonak Euskadiko Eskola Kontseiluko kide izendatzea: Andoni Busquet Elorrieta jauna, Mikel Pagola Tolosa jauna, Agurtzane Llano Cuadrado andrea, Aitor Sorriketa Larrea jauna, Fernando San Martín Gubia jauna eta Juan Carlos Castaño Moreno jauna.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 23a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.